




3. URRATSA



3. URRATSA



EUSKAL HERRIKO PROBINTZIAK

Josu Txoperena Iribarren

OSTATUKO NESKATXAREN KOPLAK

Joxe Austin Arrieta Ugartetxea

TRENEKO KOPLAK

Jon Maia Soria

LUKAS ADIXKIDEARI

Fernando Aire *Xalbador*

BERSO BERRIK ANDRE BATEK JARRIK ERNANIKO BERRIK OSO ARGIGARRIK

Joxepa Zubeldia Elizegi

ISPILUAREKIN SOLASEAN

Maddi Ane Txoperena Iribarren

EMAZTE ZENAREN SOINEKOARI

Fernando Aire *Xalbador*

ISPILUA

Joxe Miel Iztueta *Lazkao Txiki*

SEHASKA

Joxe Miel Iztueta *Lazkao Txiki*

NAIARI

Joseba Agirretxea

FESTARA ATERATZEKO NEGOZIAKETAN

Ainhoa Sarasua Maritxalar / Lur Renteria

HERRIA ETA HIZKUNTZA

Fernando Aire *Xalbador*

BERTSO BERRIAK HORMA ZAHARREI JARRIAK

Xabier Amuriza Zarraonaindia

BIHAR ERE AZTERKETAK DITUGU

Xan Alkhat

AGUR SAGAR BELTZERAN

Xabier Amuriza Zarraonaindia

ITSASOARI BEGIRA

Jon Maia Soria

LIMOSNATXO BAT

Pello Mari Otaño Barriola

TXEPETXA

Pello Mari Otaño Barriola

BASARRIRI ERANTZUNA

Inaxi Etxabe

XURIKO MEHETEGIKO XAKURRA

Gratien Adema *Zalduby*

LAGUNAK ETA GU

Aitor Servier Etxexuri

IKUSTEN DUZU GOIZEAN

Joan Batista Elizanburu

ARTZAINTEA

Fernando Aire *Xalbador*

AIAKO HARRITAN

Iñaki Eizmendi *Basarri*

ORAIKO DAMA GAZTIAK

Aña Etxegarai Baraziart

HABANERA

Xabier Lete Bergaretxe

NERABEZARO BETEAN

Unai Iturriaga Zugaza-Artaza

IPARRAGIRRE ABILA DELA

Juan Frantzisko Petriarena *Xenpelar*

HAIZAK HI MUTIL MAINONTZI

Juan Frantzisko Petriarena *Xenpelar*




EUSKAL HERRIKO PROBINTZIAK

Doinua: Hemen gezurra nagusi

Neurria: Hiru puntuko kopla. Hiru puntuko berdina (ip) /

Lauko berdina, hiru puntuz eta zortzi silabaz (hg)



Josu Txoperena Iribarren
(2002 Hendaia, Lapurdi)

1 **Lapurdi**

Ezpeletatik **kostara** (bis)

turismoa dute **traba**,

beraz, ez bisitan joan beharrezkoa ez **bada**.

2 **Nafarroa**

“Muga” batek **bereizia**, (bis)

ze lur handi ta **bitxia**.

Nafarroan egin leizke bertze 7 **probintzia**.

3 **Gipuzkoa**

Sagardo eta **alarde**, (bis)

zer da lur hau besta **gabe**.

Ta bertsolariak daude harri azpitan **baitare**.

4 **Xiberua**

Xorrotx Buame ta **Pitxu**, (bis)

ta zenbat jende **jakintsu**.

Folkloreaz gain lur hontaz zerbait ba ote **dakizu**?

5 **Araba**

Lur emankorren **dizdira** (bis)

ta historiaren **segida**.

Arabako txoko asko ezagutzekoak **dira**.

6 **Bizkaia**

Bilbo ta **gainontzekoa** (bis)

Guggenheim eta **metroa**.

Nork jarri du bazterrean Euskal Herriko “**zentroa**”.

7 **Lurra kantu bidez blaitu** (bis)

ta ezagutzen **jarraitu**.

Ezberdintzen baina gauza gehiok elkartzen **baikaitu**.





OSTATUKO NESKATXAREN KOPLAK



Joxe Austin
Arrieta Ugartetxea
(1949 Donostia, Gipuzkoa)

Doinua: Isildu zaigu eguna

Neurria: Hiru puntuko koplak. Koplak handia, hiruz puntuz

Testuaren iturria: Susa argitaletxea

Emakume baten samina, senarra Espainian preso dagoelako.

Joxe Austin Arrieta idazleak koplak zaharren estiloa eman zion sortari, naturako irudiak baliatuz.

Doinua Anton Latxak sortuta, Oskorri taldeak plazaratu zuen kantua.

- | | | |
|--|--|---|
| <p>1 Isildu zaigu eguna
larre ondoan asuna
zure gomuta* saminagoa
bihotz nereko kutuna.</p> | <p>5 Ibaia dator uholde
haizea uraren golde
euskal andra-gizonen odola
ez da ixuriko debalde.</p> | <p>9 Artoa zaigu zoritu*
sagarrondoak gorritu
zu noiz itzuli itxaropena
ez zait gogotik akitu*.</p> |
| <p>2 Eperra garitzan kanta
ehizeko zakurra zaunka
teilatu gorriari dario
nigar eta odol tanta.</p> | <p>6 Eder basoan haritza
pagoa larden bortitza
bazter hauetan zenbait jaunskilok*
errez jan ohi du bere hitza.</p> | <p>10 Udako sasoiak uzta
larrean eder hirusta
nire bularra zuk laztan ezik
ximelduriko masusta.</p> |
| <p>3 Belar gainean bildotsa
haizeak leun du hotsa
etsai-urratsen zarata hitsa*
gorrotoaren ostotsa*.</p> | <p>7 Sagarrak daude ustelak
mikaztu dira upelak
lehengo aldean orain gara gu
abertzale txit* epelak.</p> | <p>11 Usoak dira igaro
basoak dirau oparo
nire magal gozoa dukezu*
zatozkenean abaro*.</p> |
| <p>4 Oilarrak harro kalparra*
zezena ez da koldarra*
Espaina aldean preso daukate
nire senargai zangarra*.</p> | <p>8 Euriak mardul dario
elurrak dirudi liho
nire bihotzak ez dezaizuke
sekulan esan adio.</p> | <p>12 Zelaiak badu hesia
ereina dugu hazia
nire erraietan ernatuko da
askazi* ezin-hezia.</p> |



gomuta = oroitzapena
hitsa = tristea, ahula
edo itzalia
ostotsa = trumoi
kalparra = gandorra

koldarra = lotsorra, beldurtia
zangarra = ausarta
jaunskilok = jauntxok
txit = oso
zoritu = heldu

akitu = ahitu, bukatu
dukezu = izango duzu
abaro = itzala, aterpea
askazi = hazia edo
ondorengoa, senidea





Jon Maia Soria
(1972 Urretxu, Gipuzkoa)

TRENEKO KOPLAK

Doinua: Estutzen ez bagaitu

Neurria: Hiru puntuko kopla.

Hiru puntuko txikia (ip) / Seiko txikia (hg)

Herritik alde egin beharrean suertatu den etorkinaren ahotik jarrita koplak dira.

Jon Maiak etxean bizi izan duen errealitatea da, 1997ko Txapelketa Nagusiko finalean bere sustraiei eskainitako agurrean azaleratu zuenez: "Ama Extremadura, aita Zamoratik / abuela ta abuelo haien aurretik / (...) denek kantatu dute nere ahotik".

Kantua Karidadeko Bentak plazaratu zuen "San Quirico" CDan (2006 Gaztelupeko Hotsak).

1 Estutzen ez bagaitu
bere **neurriak**
kantatuko ditugu
kopla **berriak** (bis)
zerurik gabeko lur
bati **jarriak**.

2 Galtzaileen bandora*
ez zaitez **lerra**
esan ziguten hasi
zenean **gerra** (bis)
hantxe hasi zen gure
bidai **ederra**.

3 Trena hartu genuen
itsasorantza
han azken geltokia
zen **esperantza** (bis)
Manu Chaorekin egin
genuen **dantza**.

4 Inoiz egon al zera
ibai **handian**
hara soilik iritsi
leike **zaldian** (bis)
mila hildako daude
gauen **badian***.

5 Ostatu eman ziguten
lehengo **mendean**
eguzkia sartzen den
leku **berean** (bis)
datozen egunsenti
denak **daude han**.

6 Ezagutu genuen
ametsen **lurra**
non udaran egiten
duen **elurra** (bis)
ez da egia baina
ez da **gezurra**.

7 Hiri berri bateko
kale **batean**
korrika sartu ginen
jende **artean** (bis)
denak etxera etorri
ziren **urtean**.

8 Karta jaso genuen
gure **herrian**
sartu behar zirela
udaberrian (bis)
idatzita zegoen
orbel **gorrian**.

9 Agur orain bagoaz
ura **bezela**
banijoala baina
badatorrela (bis)
esan gure lagunei
ondo **gaudela**.



bandora = partera

badian = itsasadarrean





LUKAS ADIXKIDEARI



PHOTO DR

Fernando Aire Xalbador
(1920-1976)
Urepele, Baxenabarre)

Doinua: Ene Lukas maitea

Neurria: Zortziko txikia (hg). Lau puntuko txikia (ip)

Testuaren iturria:

Fernando Aire Xalbador. 1976. Odolaren mintzoa. Auspoa. 115 or.

Lukas Urepeleko herritar bat zen, Amerikara gazterik joana. Azken aldera bixita batzuk egin zituen Urepelera eta bertsozale beroa zen: Mattin ere ekarrarazi izan zuen Urepelera, Xalbadorrekin kanta zezan.

Behin, egonaldi baten ostean, Lukasek Amerikatik dirua igorri zion erretoreari, apaiz etxean bazkaria egin zezaten lau lagunek (tartean zen Xalbador); bazkaldu soilik ez, afaldu arte ez ziren atera apaizarenetik! Lukasi eskerrak bidaltzeko, bertsoak jar zitzala eskatu zioten lagunek Xalbadorri.

- 1 Ene Lukas maitea, zer bihotza **duzun** gutaz arta* hartzeko, izanik hoin **urrun!** Beldurtzeko da Euskal Herrian ez **dugun** zu bezalakotarik bi miletan **ehun**.
- 2 Haragia ausarki, herriko **ogia** mugaz bertze aldetik karri **edaria** pare gabea zela da egi **haundia** guk zure diruekin egin **bazkaria**.
- 3 Beti orroituko naiz ikustate* **hortaz** ene lagunak ere kontent ziren **arras*** denek maiz giniola: "Gizagaixo **Lukas!**" Han etzen egun hartan zu bertzerik **eskas***.
- 4 Musean iragan da gero **atsaldea** nik laguntako nuen ogi **egilea** Aguxtinek Battitta, gure **abadea** ez idurian haxe zer xori **parea!**
- 5 Gezurrak haizu* ziren, hori **betikoa** zaharrek inbidia ta guk **hordagoa** nahiz denek berdintsu ginuen **jokoa** gaztek galdu dugula erran gabe **doa**.
- 6 Holaxet iraganik uros* **atsaldea** han berean jin* zauku afal **tenorea*** berriz jan eta hartu etxeko **bidea** zuretzat ezagutzaz* bihotza **betea**.
- 7 Etxeko bide hortan ez ginazan **gaizki** loanes, Aguxtin ta ni, hiru ginen **naski*** askotan ixilago joan dira **zazpi** eta bide guzia ez ginuen **aski**.
- 8 Lagun on horiekin zinez laketu* **niz**, orok* omorea on kantuz eta **irriz**. Oi, egun eder hori berrituko **balitz!** Zuk nahi duzunean gu prest gira **berriz**.



arta = arreta, ardura, zaintza
ikustate = kontsiderazio, esker on
arras = oso
eskas = falta
haizu = zilegi, bidezko, baleko
uros = pozik

jin = etorri
tenorea = ordua
ezagutzaz = esker onez
naski = noski, segurki
laketu = dibertitu, ongi pasa
orok = denek



BERSO BERRIK ANDRE BATEK JARRIK ERNANIKO BERRIK OSO ARGIGARRIK

Doinua: Ene Lukas maitea

Neurria: Zortziko txikia (hg). Lau puntuko txikia (ip)

Testuaren iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa



Joxepa Zubeldia Elizegi
(1867-1947 Hernani,
Gipuzkoa)

1918ko apirilaren 2an Hernanin gertatutako baztangaren matxinada kontatzen du. Lasarte eta Hernani inguruetan baztanga kasuak agertu zirenez, Gobernadoreak hainbat neurri hartzeko agindu zuen. Tartean, zazpi gaixo Hernaniko ospitalera eramatea, han hobeto isolatuta egongo zirelakoan.

Gaixo guztiak Hernanira ekarriz gero, gaitza bertan zabalduko zen beldurra hartu zuen herria. Eragozteko, herritarrek bideak barrikadaz bete zituzten: gurdiz, upelez, egur-oholez eta bestelako tramankuluz. Hernaniko ospitalea ere erretzeko zorian egon ziren, eta guardia zibilei aurre egin zieten. Matxinadan asko ziren emakumeak, tartean Joxepa Zubeldia bera. Garaipena ospatzeko, ekainaren 1ean herri bazkaria egin zen eta Joxepa Zubeldiak, mahai gainera igota, sorta honetako 24 bertsoak kantatu zituen herritarren aurrean. Orduko hartan ere, seme-alabak lotsatu egin ziren amaren bertso jardunaz.

Hau da Joxepa Zubeldiaren bertso jarrietan gugana heldu den sorta bakarra. Joxepak anaiarekin bat-batean jarduten zuen eta sorta asko idatzi zituen bere idazmahai propioan, baina hil zenean alabek erre egin zituzten denak.

1 Apirilaren bian
Hernaniko **herria**
lau orduan egon zan
ikaragarria
karrasi* eta diarka*
orduko **larria**
eskerrak genduela
batasun **haundia**.

2 Orduantxe Hernanin
ez zan lo **jendia**
kanpana ta tronkua*
dantzatuak **dia**
tronko haundikin
itxi ziraden **bidiak**
barrika gurdi eta
asma al **guziak**.

3 Bidera atera ginan
emakume **asko**
ailegatu* baino lehen
egin degu **alto***
zibilak esan zigun
etxera **biltzeko**
bazutela baimena
odola **isurtzeko**.

4 Zibila franko baitzan
zaldi **galantakin**
guri desafioka
beren **ezpatakin**
ez ginan ez izutu
hoiek **guztiekin**
danok atera ginan
mirari **haundiakin**.

5 Mikela eta Asentxi
pareja **fuertia***!
Haiek aurren zirala
fin ginan **jendia**
zaharrak eta gaztiak
neskatxa eta **andriak**
andre txit* aberatsak
baita ere **pobriak**.

6 Horra bertso berriak
andre batek **jarri**
ez diot esker txarrik
ematen **inori**
orduko uniu*
beti da **komeni**
hala gerta dedila
biba gu ta **Hernani**.



karrasi = garrasi
diarka = deiadarka, oihuka
tronkua = enborra

ailegatu = iritsi
alto = geldialdia


pareja fuertia = bikote azkarra
txit = oso
uniua = batasuna



ISPILUAREKIN SOLASEAN

Doinua: Nigarrez sortu nintzen I

Neurria: Lau puntuko txikia (ip) / Zortziko txikia (hg)



Maddi Ane
Txoperena Iribarren
(1994 Hendaia, Lapurdi)

- 1 Ispilutxo, zer nago: argal edo lodi?**
Nondik begiratzen den izaten da **hori**...
Hankak zauli* dituzu: altxa ta **erori**
gorputz batek behar du sentitzea **ongi**. (bis)
- 2 Tixerta* hau ez ote da neretzako motza?**
Horrenbertze kolorek ematen dit lotsa!
Maite, arropa zer den pentsa zazu **ontsa**:
ematen ote dizun bero edo **hotza**.
- 3 Pikortaz* beterik dut, ispilu, bisaia*!**
Ba zabaldu ezazu begien **paisaia**
beti izan zara-ta neska hain **alaia**
irribarre egiteko baduzu **garaia**!
- 4 Zu bezalako aunitz daude Instagramen...**
Baina filtroek utzi dituzte **nabarmen**
nahiz eta ez dizudan hatzez **like emanen**
nik bederen ez dizut gezurrik **erranen**.



zauli = malgu, arin
Tixerta = kamiseta

Pikortaz = granoz
bisaia = aurpegia





EMAZTE ZENAREN SOINEKOARI

*Doinua: Hamaika aldiz daukazu lehendik A
Neurria: Zortziko handia (hg). Lau puntuko handia (ip)
Testuaren iturria:
Joxe Mari Aranalde. 1996. Xalbador pertsularia. Auspoa. 111 or.*



PHOTO DR

Fernando Aire Xalbador
(1920-1976
Urepele, Baxenabarre)

*1965eko Txapelketan, bakarka kantatzeko, gai hau jarri zioten Xalbadorri:
zure emazte hil zenaren soinekoari, bi bertso.*

- 1 Pentsa zazute alargundu bat ez daike izan **urusa***
dolamen* hunek, oi! ez dezala ainitz gehiago **luza**
orai urtea ziloan sartu andreñoaren **gorputza**
haren arropa hantxet dilindan penaz ikusten dut **hutsa**.
- 2 Geroztik nihaur* ere nabila guzia beltzez **jantzirik**
ez dut pentsatzen nigar eiteko ene begiak **hesterik***
ez pentsa gero, andre gaxoa, baden munduan **bertzerik**
zure arropa berriz soinean har dezaken **emazterik**.



urusa = zoriontsua
dolamen = aiene, intziri, arrangura

nihaur = nerau, ni neu
hesterik = ixterik






ISPILUA

Doinua: Komeni zaigun ixtoria bat A

Neurria: Zortziko handia (hg). Lau puntuko handia (ip)



Joxe Miel Iztueta
Lazkao Txiki (1926-1993)
Lazkao, Gipuzkoa)

1989an, Mutiloan (Gipuzkoan) Lazkao Txikiri ispilu bat eman zioten.

Hara zer elkarrizketa izan zuen ispiluz bestaldeko lagunarekin...

1 Oso ispilu eder, polit bat
didate aurrera **ekarri**
eman duenak jakingo zuen
mutilzahar* zahar honen **berri**
gazte dan arte hau izaten da
gazte guztien **pozgarri**
zahartutakuan ez da beidatzen*
gaztetan ohi bezain **sarri**.

2 Haizak, nik hiri bota behar dit
bertso koxkor* bat edo **bi**
bebingoan jarri geranez gero
biok aurpegiz **aurpegi**
neri begira hortik daduzkat
alperrikako bi **begi**
hik ez nauk, noski, ni ikusiko
baina nik ikuste haut **hi**!

3 Neri begira jarrita, motel
zertako hago **honela**?
Ta pentsatzen dit aspalditxotik
ezagututzen **hautela**
mutilzaharraren moko horrekin
ez dek ematen **motela***
azal-zimurtzen ari haiz, motel
Lazkao Txiki **bezela**.



mutilzahar = donado, karlos
beidatzen = begiratzen

koxkor = puska
motela = gatzila





SEHASKA

Doinua: Nere sehaska oraindik ere

Neurria: Zortziko handia (hg). Lau puntuko handia (ip)

Testuaren iturria: Jose Migel Iztueta "Lazkao Txiki". 1994.

Irriz eta malkoz. Auspoa. 442 or.



Joxe Miel Iztueta
Lazkao Txiki (1926-1993)
Lazkao, Gipuzkoa)

1980an, Zestoan (Gipuzkoan) Azpillaga bertsolariari eginiko omenaldian, gai hau jarri zioten Lazkao Txikiri hiru bertso kantatzeko: Sehaska.

Lazkao Txiki hil ostean argitaratu zen "Irriz eta malkoz" liburua, berari jasotako testigantzak jasotzen zituena, eta bertan argitaratu ziren bertso hauek ere. Bertsoak ezagun egin zituzten Xabier Lete abeslariak, "200 urtez bertsotan" CD bilduman (2001 Elkarlanean) eta Kupela taldeak, "Gailurrak ikutuz" CDan (2012 Elkarlanean).

- 1 Nere sehaska oraindik ere gordea daukat **goguan** neronek ere zail da esaten zenbat maitatutzen **nuan**. Bere gainean ibiltzen niñun* txoritxo baten **moduan** karga haundirik ez nuen eta aixa jasotzen **ninduan**.
- 2 Ta sehaskari zail da esaten merezita daukan **dana** bera da nere lehendabiziko neskameorde* **izana**. Haurra nintzala une goxo ta amets ederrak **emana** bihotz-bihotzez maitatzen dedan nere bigarrengo **ama**.

- 3 Hara ta honuntz astindutzen zan hotsa jotzen zuen **kun-kun** aingerutxo bat banintz bezela gordetzen niñuen **txukun***. Amak ertzetik kantatzen zuen gero sehaskak **erantzun** gaur nik dakidan euskera ere zuk erakutsi **zidazun***.



niñun = ninduen
neskameorde = sehi, neskato

txukun = ederki
zidazun = zenidan





NAIARI

Doinua: Oraindik hango oihartzun hots bat
Neurria: Zortziko handia (hg). Lau puntuko handia (ip)
Testuaren iturria: Badok, Berriaren Euskal Musikaren Ataria



Joseba Agirretxea
(1966 Ondarroa, Bizkaia)

Joseba Agirretxearen hitzak dituen sehaska kanta hau, Imanol Larzabal abeslariak plazaratu zuen "Amodioaren berri" diskoan (1990 Elkar).

- 1 Begiak itxi badator eta
lo-lo dagizun **lamia***
behaztxoekin heldu egizu
izara* zuri **garbia**
ixil-ixilik zarata barik
ostandu* da **eguzkia**
bainan artean zeure ertzean
jagole* da **ilargia**.
- 2 Ardi txiki bat, ardi txiki bi
lokartu jatzuz* **ondoan**
zeure ametsak etzun daitezen
euren lepo **beroan**
ttunkurrunkuttun, lo-lo dagizun
izar azpiko **itsasoan**
laztan eginez, ezpainen finez
adats* kizkurren **basoan**.

- 3 Itargiaren irun zapian*
igeri egizu **lasai**
amets artean, klabin zuriz
apaindu zaitez **galai**
binbi-bonbolo, egizu lo-lo
aingeruak dagoz **ernai***
egunsentian itxartutzian*
izan nagizu zeure **zai**.



lamia = lamina
izara = mihixe
ostandu = ezkutatu
jagole = zaindari

jatzuz = zaizkizu
adats = ile
Itargiaren irun zapian =
Ilargiaren harizko zapian

ernai = esna, adi, erne
itxartutzian =
iratzartzean, esnatzean





FESTARA ATERATZEKO NEGOZIAKETAN

Doinua: Erreguetan ari nintzela

Neurria: Lau puntuko handia (ip) / Zortziko handia (hg)

Festara atera nahi duen nerabearen eta gurasoaren arteko
elkarriketa.



Ainhoa Sarasua Maritxalar
(1997 Itsasu, Lapurdi)

Lur Renteria
(1996 Baiona, Lapurdi)

Nerabea

- 1 Urte osoan jasana dugu egin beharraren **zama**
kolegioan eta etxean untsa bete baitut **lana**
eskakizun bat egin nahiean hurbildu naiz **zuengana**
Herri Urratsen festa egiten utzi aita eta **ama**.

Burasoa

- 2 Gazteak mozkor eta bakarrik egoten dira **pentzean***
eta giroa ilun bihurtzen da tenore* bat **heltzean**
kontzertuetan dantza ezazu baina beti gure **ertzean**
nork artatua izan dezazun zerbait txarra **gertatzean**.

Nerabea

- 3 Ia handitu naiz eta zuekin ez naiz senditzen **gustura**
eta biziki gustuko ditut laranja jusa* ta **ura**
ta ezbehar bat gertatzen bada ez zaitezte **arrangura***
lagunartean elgar zaintzeko hartuko dugu **ardura**.

Burasoa

- 4 Azken aldian ingurura so* guzia ageri da **beltz**
ta besta beste manera batez pentsatzea ez da **erres**
baina erakutsi duzu duzula nola hartu ta eman **babes**
goza ezazu Herri Urratsen zutaz harro gira **Amets!**



Pentzean = belazean
tenore = ordu
laranja jusa = laranja zukua

arrangura = kezka
so = begira





HERRIA ETA HIZKUNTZA

Doinua: Iragan egun batez

Neurria: Hamarreko txikia (hg). Bost puntuko txikia (ip)

Testuaren iturria: Fernando Aire Xalbador. 1976.

Odolaren mintzoa. Auspoa. 144 or.



PHOTO DR

Fernando Aire Xalbador
(1920-1976)
Urepele, Baxenabarre)

Bi herritarren arteko eztabaida azaltzen du sortak. Bata frantsesez mintzo da, Euskal Herri aske baten alde. Bestea euskaraz mintzo da eta frantses herritarra sentitzen da. Bi lagun horien kontraesanak bistaratzen ditu Xalbadorrek, beretzat herria eta hizkuntza bat direnez.

Kantua ezagun egin zen Mikel Laboaren ahotsean; "Lau Bost" diskoan kaleratu zuen lehen aldiz (1980 Xoxoa).

- 1 Iragan egun batez, ostatu **batean** bi lagun ari ziren eztabai **betean** biak ziren euskaldun zintzoak **ustean** halere ezin adi* elgarren **artean** entzuten egona naiz omere **tristean**.
- 2 Ez dut osorik hartu baten **parabola*** erdaraz mintzo baitzen, berak jakin **nola**: gure herri maiteaz zuela **axola** hau, bere gain beharra, bertzen men **dagola** "Gora Euskal Herria!" frantsesez **ziola**.
- 3 Bertzea oldartu zen euskara **garbian**: "Gure hizkuntza ez da galduko **agian!** Hori dugu berexik guk **Euskal Herrian** gainerakotan gaude bertzen **neurrian** frantses eginak gira joan den **aspaldian!**".
- 4 Bi gizon horietan, zuhaitz **onekoa** batek hondoa zuen, bertzeak **hostoa** gauza arraro hori ez dut **gustokoa** mendian bizi arren, dut **ikustekoa** gaztainaren aldaxkez jauntzirik **pagoa**.
- 5 Bat herria goratzen arrotz baten **gisa** arrotz nahiak berriz herriaren **hitza** gureak ja egin du, gaiten garbi **mintza** lanopean bezala galduak **gabiltza** ez daizke bi nagusi batean **zerbitza!**
- 6 Elgarri direlakotz bi gizon **jazarri*** gauza bat bera dute bi pusketan **zarri*** erakatxi* nahi tut nik puskak **elgarri** gure hizkuntza eta gure **Euskal Herri** konparatzen baititut izaite **bateri**.
- 7 Anai-arrebak, entzun ene aho **hotsa**: izaite bat ez daike hezur hutsez **osa** herria da gorputza, hizkuntza **bihotza** bertzetik berextean bitarik **bakotza** izaite horrendako segurra **hilotza**.
- 8 Batzu herriaz oroit, euskaraz **ahantzi** bertzek euskara maita, herria **gaitzetsi** hizkuntza ta herria berex ez **doatzi** berek nahi daukute **konpreniarazi** bata bertzea gabe ez daizkela **bizi**.



adi = entzun
parabola = irakaspen bat duen
kontakizuna

jazarri = oldartu
zarri = ezarri
erakatxi = erakutsi, seinalatu





BERTSO BERRIAK HORMA ZAHARREI JARRIAK



Xabier Amuriza
Zarraonaindia
(1941 Etxano, Bizkaia)

Doinua: Espainian behera

Neurria: Hamarreko txikia (hg). Bost puntuko txikia (ip)

Testuaren iturria:

Xabier Amuriza. 1977. Menditik mundura. 181 or.

Sorta 1972an idatzi zuen Amurizak, kartzelako berri emanez, artean apaiza zela. Garai hartan Zamorako kartzela apaizentzat bakarrik zen. Amurizak 1968tik aurrera, Francoren diktadura garaian, zazpi urte egin zituen preso, hiru espetxealditan. Gerora, sorta hau “Menditik mundura” diskoan ere zabalduta zuen (1978 IZ).

Doinua eibartar batzuegandik jaso zuen Amurizak, “Agur sagar beltzeran” liburuan dionez. Eibartarrek doinu honetan abesten zuten Bilintxen “Potajiarenak” sorta (“Egunaren izena” doinua erabili ordez).

1 Bertso berri batzuek
behar ditut **jarri**
entzumenik dutenen
entretengarri*
katez loturik preso
gaituzte **ekarri**
kantuz azalduko dut
espetxeko **berri**
inozentzian inor
ez dadin **etorri**. (bis)

2 Espainian behera
han dago **Zamora**
basamortu hoberik
nonbait **izango da**
ez mendi ez itxaso
ez belar ez **lora**
hementxe bizi behar
hainbeste **denbora**
hain maite dugun Euskal
Herriatik **kanpora**. (bis)

3 Etxetzar bat hemen da
itxuraz **bikaina**
goralduko nukena
gorroto dut **baina**
erdia zementu ta
erdia **burdina**
gizonak piztitzeko
apropos **egina**
hobe zen infernura
erori **bagina**. (bis)



entretengarri = libertimendu, jostagarri





4 Lotsagarri da baina
sinestu hau **jaunak**
ate gabe ditugu
hemengo **komunak**
testigu gabe hortan
ohiturik **ginenak**
agiriz egin behar
ezkutuko **lanak**
erakutsi ditugu
dokumentu **danak**. (bis)

5 Nahiz ta mila gizonek
izan gure **kargu**
Madrilera jo behar
ezer nahi **badugu**
handik berriz ezetza
aurretik **dakigu**
gorroto gaituzte ta
zertako **erregu**
holakoxe piztien
eskuan **gaude gu**. (bis)

6 Bisita egunak ere
begira **zer dian**
amari egin behar
erdara **garbian**
gainera burdinazko
bi sare **erdian**
eta alkahuete* bat
albotik **goardian**
burduntzi bat sartuko
nioke **ipurdian**. (bis)

7 Ilunpean dagonak
maite du **argia**
baita egarri denak
ere ur **garbia**
noizbait hautsiko ahal da
gure **uztarria**
hazia sortzen denez
lurpean **jarria**
kartzelan erneko da
Euskadi **berria**. (bis)





BIHAR ERE AZTERKETAK DITUGU

Doinua: Lagundurikan danoi I

Neurria: Bost puntuko txikia (ip) / Hamarreko txikia (hg)



Xan Alkhat
(1982 Armendaritze,
Baxenabarre)

- 1 Ikastea baitugu ikasleek **lege**
hortan gabiltz karraskan* erne bezain **trebe**
azterketek gainera baitute **botere**
atzo bat baginuen gairditzeko **xede**
gaur bi baginituen eta bihar **ere!**
- 2 Historia, Fisika edota **Euskara**
azterketekin goaz hona eta **hara**
ez tronpatu* nahiak dakar hainbat **traba**
ta galdegina dena ezartzen ez **bada**
orduan guhaur goaz peko **errekara**.
- 3 Azterketek hainbeste jakitate **neurtzen**
dituzte bainan ez dut hain untsa **ulertzen**
emozioek dute ikaslea **lehertzen**
eta ahanzten badu ikasia **zer zen**
orduan azterketek zer dute **aztertzen?**
- 4 Zerbait gehiago baita ikasleen **bizia**
huts egitea ez da berez **itsusia**
azterketekin dugu argi **ikusia**
ezin direla izan ikasleen **auzia**
ez baitute islatzen dakigun **guzia!**



karraskan = gogo betean

tronpatu = nahastu, huts egin





AGUR SAGAR BELTZERAN

Doinua: Agur sagar beltzeran

Neurria: Hamarreko txikia (hg). Bost puntuko txikia (ip)

Testuaren iturria: Xabier Amuriza 2001.

Agur sagar beltzeran. Bertsolari Liburuak. 31 or.



Xabier Amuriza
Zarraonaindia
(1941 Etxano, Bizkaia)

Telebistako izar bihurtuta, herritik alde egin duen pertsonaia famatuari jarritako sorta.

Pantailan objektu desiragarri gisa tratatzen dute; euskara baino erdara erakargarriagoa zaio izarrari.

Kantua Anje Duhalderen ahotsean egin zen ezagun, "Anje Duhalde Xabier Amurizaren kantari" CDaz (1990 IZ).

- 1** Gogoan al dun nola
biok **parez pare**
izan ginen urondo
bereko **landare**.
Gero egin haiz zuhaitz
arrotzeko **lore**
badun nik ez dakidan
hainbeste **kolore**:
zenbat aldatu haizen
sinesteko **ere**!
- 2** Alde huen herritik
igandean **goizik**
hemen ez omen baitzen
betikoa **baizik**.
Pantailan omen habil
orain oso **pozik**
behin erdi estalita
behin erdi **biluzik**:
Ez ninan sinestuko
neuk ikusi **ezik**.
- 3** Eguzkiz makilatu
dinate **azala**
jantzi eta erantzi
panpina **bezala**.
Hi omen haiz harako
irla **ideala**
zoramen-haitzak eta
zorion-**itzala**:
Ez dun sinesten baina
ematen dun **hala**.





- 4 Oraindik ezin dinat
buruan bat **egin**
joan hintzen usoa
“txoriñe” **honekin**.
Maite haut esateko
zenbat hots **ezberdin**
Oh ma cherie, Oh mi amor!
*I love you my **darling**:*
Sinestu dien eta
hireak egin **din**.
- 5 Amodioa hire
ager-**ostenetan***
teatroa besterik
ez dun **gehienetan**.
Hi azukrontzi jarri
haute **banaketan**
begiak euliak lez
ibiltzeko **bertan**:
Zail dun sinesten baina
hala dun **benetan**.
- 6 *Yo te adoro, Oh my love!*
Ene **mon-amour-a!**
Ez al zain higuigarri
delako **murmurra**?
Betiko tuntun horrek
behar din **gezurra**
edo beste egien
estalki **maltzurra**:
Zulatu didan neukan
sineste **apurra**.
- 7 Loriaak udan ihintza...
Lizar gerri **lerden**...
maitaleak horrela
mintzo gaitun **hemen**.
Ez dun hain “guaia” baina
euskaraz **bederen**
hobeto jakiten dun
egia **ote den**:
Hik dena sinestu dun
ulertu baino **lehen**.
- 8 Ez dinat ukatuko
berezko **lilura**
loreak ere joaten
ditun **merkatura**.
Sal-erosian habil
eskutik **eskura**
heuk zer balio dunan
ez zaien **ardura**:
Sinestea zertan den
gure neska **hura**!
- 9 Halako marka berri
galanten **aukera**
turbo-motorra eta
bi izter **gainera**.
Prezioa jartzen din
bularren **parera**
tristura jaitsi zaidan
gogo **barrenera**:
Ezin dinat sinistu
hi haizela **bera**.
- 10 Itxaropena azken
galera **izanik**
hirekin bera ere
galdua **dinat nik**.
Joanak ez din mugarik
hartara **emanik**
batez ere ez badu
itzultzeko **planik**:
Sinesterik horrela
galduko **hintzanik**!
- 11 Agur, sagar beltzeran
edo **beilegia**
agur, betiko hire
izar **aurpegia**.
Izango haiz ederra
baita **ederregia**
ez, ordea, maitea
ezin **alegia**:
Heuk ez sinestu baina
hori dun **egia**.



* ager-ostenetan = agerpen-ezkutaketan





Haira Aizpurua Ibargarai
(2006 Sara, Lapurdi)

MAITEMINTZEAZ

Doinua: Jainkoak emaiten du

Neurria: Bost puntuko txikia (ip) / Hamarreko txikia (hg)

- 1 Batera garenean gogotsu ta **inket**.
Eragiten diguna zerbaitek, **norbaitek**.
Sentimendu hori nork ez ote du **laket**?
Idatziko duela aitortu **dezaket**
maitemintzeaz ezer ez dakien **batek**. (bis)
- 2 Nahiz eta errexena den **goraipatzea**,
bestearen minekin **enpatizatzea**.
Gertatzen da denboran errexeta **zailtzea**
ta zer den egiazki ez **desberdintzea**
maitemintzea edo mina **maitatzea**. (bis)
- 3 Galderei erantzuten ongi **bageneki**,
denbora aurreztuko genuke **ederki**.
Nor bait ezagutzean ez goaz **emek**:
«Maite al dut? Edo dut laguntzat **hobeki**?»
Maitasuna neurtzen ari gara **beti**. (bis)
- 4 «Zaindu zure burua!» «Izan zure **jabe**!»
«Bodipositibatu!» «Ez izan **ahalge**!»
Nahiz gizarteak erran girela **kapable**,
ezinezkoa baita gabiltza **halare**,
gure buruarekin maitemindu **gabe**. (bis)





Jon Maia Soria
(1972 Urretxu, Gipuzkoa)

ITSASOARI BEGIRA

Doinua: Azken arnasa eman nahi nuke

Neurria: Hamarreko handia (hg). Bost puntuko handia (ip)

Testuaren iturria: Badok, Berriaren Euskal Musikaren Ataria

Itsasoari begira, Euskal Herriari buruzko gogoetak. Kantua Benito Lertxundik plazaratu zuen "40 urtez ikasten egonak" CDan (2005 Elkar).

Sebastian Lizasoren bertsoari keinua

"Azken arnasa eman nahi nuke itsasoari begira" esaldia Sebastian Lizasok kantatu zuen 1989ko Txapelketa Nagusiko finalean, kartzelako (edo egungo ganbarako) lanean. Halaxe zion gaiak: "Bizitza guztia itsasoan eman duzu: Gaur egun ohetik mugitu ezinez zaude. Leihotik sartzen zaizu itsasoaren olatu hotsa". Azken bertsoa eta bertsoaldia errematatzeke kantatu zuen Lizasok "Azken arnasa eman nahi nuke itsasoari begira".

1 Zazpi mendeko gauean gaude
gure lore eta **sasi**
irrintzi, oihu, ele ta ulu
marmario ta **garrasi**
haize, enbata, brisa, galerna
gaur garbi, bihar **nahasi**
xake taularen zuri-beltzetan
arrats gozo, egun **gazi**
ai! Itsasorik ez bageneuka
zeri so* negarrez **hasi**?

2 Gure zuhaitza landatu dugu
amildegi **muturrean**
adarrak dauzka ertzetik haruntz
sustraiak, berriz, **lurrean**
bihotz-hesteak estu helduaz
esku baten **ahurrean**
bertso berriak jartzera noa
bere indar **laburrean**
nola malko bat isuritzen den
itsasoaren **aurrean**.






3 Nola haizea ur azalean
eguzkiaren **irteeran**
nola kaioak zorabioan
itsas enbata **bezperan**
pentsatzen nago gure berdin
ibiltzen ez ote **geran**
susmoa daukat gure patua
itsasoa ez **ote dan**:
libre ta zabal dugu aurrean
baina ezin dugu **edan**.

4 Heldu herria sustraiaetik
tira eta gora **jaso**
jarri Kantauri aurrean eta
mantendu zutik hari **so**
ispilu hortan ikus gaitezen
herriz herri, auzoz **auzo**
zauria gatzetz itxi ditzagun
malkoak urez **eraso**
libre ta zabal irla txiki bat
salbatuko da **akaso**.

5 Azken arnasa eman nahi nuke
eguna hiltzen **ari da**
azken arnasa eman nahi nuke
bertsoak entzuten **dira**
azken arnasa eman nahi nuke
kantari nator **herrira**
azken arnasa ematen degu
eguzkitik **eguzkira**
azken arnasa eman nahi nuke
itsasoari **begira**.





Pello Mari Otaño Barriola
(1857 Zizurkil, Gipuzkoa
– 1910 Rosario, Argentina)

LIMOSNATXO BAT

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

Neurria: Hamarreko handia (hg). Bost puntuko handia (ip)

Testuaren iturria: Antonio Zavala. 1993.

Pedro Mari Otaño eta bere ingurua I. Auspoa. 381 or.

Eskale zahar baten nahigabea, gaztetan odol beroz gerrara joan izanagatik; itsu eta eri itzuli zen gerratik. Pello Mari Otaño gaztea zela II. Karlistaldia piztu zen eta 18 urterekin Argentinara joatea erabaki zuen, seguru asko gerratik ihesi.

Sorta hau 1893an argitaratu zuen, Euskal Erria aldizkarian. 1897an Donibane Lohizuneko (Lapurdiko) hitz neurtuen sarietara aurkeztu zuen eta bigarren saria jaso zuen (50 libera).

1 Mutil koxkor bat itsuaurreko
zuela **aldamenian**
gizon burusoil, bizar zuri bat
bi makuluren **gainian**
kale eskinan ikusi nuen
inora ezin **joanian**
ta bera nor zan jakin nahiean
inguratu **nintzanian**
limosnatxo* bat eskatu zidan
Jainkuaren **izenian**.

2 Zerbait emanaz galdetu nion
ahal zan modu **onenian**
jaiotzatikan al zeukan ala
gaitzak hartua **mendian**
erantzun zidan: “Ez, semia, ez
nik sasoia **nuenian**
ez nuen uste iritsitzerik
honetara **azkenian**...
Gaur limosna bat eskatutzen det
Jainkuaren **izenian**”.



limosnatxo = amoina, erremusina





3 Eta segitu zuen esanaz:
“Lehengo gerrate **denian**
ni aurren xamar ibiltzen nintzan
beti edo **gehienian**
nekatu gabe aisa igoaz
aldapik **luzienian**
ez zan burura asko etortzen
gu hala **genbiltzanian**
gero limosna eskatutzerik
Jainkuaren **izenian**.

4 Odolak bero eta burua
harrua **daguenian**
edozein moduz sartutzen da bat
halako **itsumenian**
atsekabe ta negar saminak
badatoz **ondorenian**
nola ere bait batek bizia
utzitzen ez **duenian**
limosnatxo bat eskatu bihar
Jainkuaren **izenian**.

5 Inoiz pentsatzen nere artian
ni jarritzen **naizenian**
gaur ere asko dirala joango
lirakenak **zuzenian**
ez luke inork sinistatuko
zer pena ematen **dian**.
Ai! Horla nintzan ni ere sano
ta gazte **nenguenian**...
Gaur limosna bat eskatutzen det
Jainkuaren **izenian**.

6 Ai! Txorakeri asko egiten
da zentzurik ez **danian**
sinista zazu ur hau pasia
daukanaren **esanian**
hobiago da sasoi dan arte
saiatutzia* **lanian**
negar eginaz ibili gabe
gero denbora **joanian**
limosnatxo bat bildu ezinik
Jainkuaren **izenian**”.





Pello Mari Otaño Barriola
(1857 Zizurkil, Gipuzkoa
- 1910 Rosario, Argentina)

TXEPETXA

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

Neurria: Hamarreko handia (hg). Bost puntuko handia (ip)

Testuaren iturria:

1994. Pedro María Otaño - Bertso guziak. Auspoa. 104 or.

1894an plazaratutako sorta, txori txiki honen ezaugarriak zehatz azalduz.

1 Askotan esan izandu dute
gizon ikastun **argiyak**
nola pixtiak izan litezken
gure **erakuslariyak**
erlea da bat aipatzen dana
o zer lan **harrigarriyak**
jartzen dituzten gure aurrian
honek eta **txingurriyak!**
Txepetxak berriz erakusten du
hainbeste nola haik **biyak**.

2 Euskal lurreko txorietan dan
txikitxuena da **bera**
gaztain kolore bakarrekoa
nahi bada ez da **ederra**
begi argiak, buru xanpala*
moko ttenttia* **aurrera**
gorputza motxa, hanka laburrak
xaltokako **ibilera**
xalapartako* hegalaria
eta kantari **ergela**.



xanpala = zapala, xabala
ttenttia = xuta

xalapartako = zalapartako,
zaratatsu





3 Txotx batek aisa jasoko luke
nola karga gutxi **duan**
baina gustatzen zaio jartzea
adar **sendoxiaguan**
amildu arren ez leike galdu
dakielako **heguan**
baina aurkitzen baldin bada ere
burnizko **aldamiuan**
hiru-lau aldiz xanpatutzen du
seguru ote **daguan**.

4 Udaberrian lehendabiziko
kabia **txepetxarena**
azaldutzen da, ta ezaguna:
goroldiozkoa **dena**
arbol-gerrian untza-tartean
du lekuri **maitiena**
ta gizon askok ikusitzian
irixpirian* **daguen**
esan ohi dute: “Zer konfiantza
txori txar honek duena!”

5 Ta edozeinek esan lezake
berari **begiratzian**
arretarikan ez dadukala
egin leioken **gaitzian**
ez-idurian hark kabiari
beste zuloa **atzian**
egiten dio, handik joateko
aurrekoa **tapatzian**
erakutsiaz pentsa zagula
nola atera **sartzian**.



irixpirian = irits bidean, eskura





BASARRIRI ERANTZUNA

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

Neurria: Hamarreko txikia (hg). Bost puntuko txikia (ip)

Testuaren iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa.



Inaxi Etxabe (1933 Oikia - 2020 Zarautz, Gipuzkoa)

Basarri bertsolari ezagunak "Aitonaren malkoak" sorta argitaratu zuen Anaitasuna aldizkarian, 80 urteko gizon batek esan zizkionak azalduz. Aitona haren mezu nagusia zen "gauzak okerrera doaz, emakumeen jokabide berriengatik" ("Sinista zazu emakumeak galdu bear gaituztela").

Inaxi Etxabek Basarriri erantzuna sorta argitaratu zuen bueltan, leku berean. 1955. urtea zen; "Oikina'ko neska" ezizenez sinatu zuen sorta.

1 Basarri jauna, zuk badaukazu
aiton bat maite **dezuna**
zeuk diozunez berekin oso
sarri tratatzen **dezuna**
eta zuk ontzat ematen dezu
harek esaten **dizuna**.
Irakurrita daukat nik ondo
bertsotan jarri **dezuna**.
Hemen dijoakizu, ba, orain
neskatx baten **erantzuna**.

2 Emakumeak utzi gaituzu
oso okertzat **hartuta**
munduan diran zorigaitz danak
gure lepora **botata**.
Gizasemeak ote dauzkatzu
oso santutzat **hartuta**?
gai honen kontra zer esanikan
ez zait neri orain **falta**
BIHOTZA NOLA JARRIA OSO
DAUKATEN MINBERATUTA.





3 Bizio txarrik asko badago
gizasemeen **artian**
begiratzea nahikoa dezu
auzo-taberna **atian**
egunero han ikusten dira
pozik asko **zurrutian***
jakinagatik hori dutela
bere buruen **kaltian**.
Ez dira hala ere geldituko
patrikak hustu **artian**.

4 Igande goiza etorri eta
beti gauza bat **buruan**:
denborik ezin pasa degu-ta
aurrera "**txikiteuan**".
Eguerdirako jarriko dira
ganberruaren **moduan**
hizkuntza ederrik entzungo dezu
gero beren **inguruan**.
Nik ezin neurtu ohitura horrek
ze kalte egiten **dituan**.

5 Nobelak* ere ikusten dira
gaur askotxoren **eskutan**
esango nuke emakumeak
haina badirala **hontan**
zenbat gastatzen duten ez jakin
zigarro eta **zinetan**
jokoan berriz zer esanik ez
taberna eta **plazetan**.
Miseriarik ez da faltatzen
gero fameli **askotan**.

6 Noranahi jua nahi dutenian
ez dute falta **dirurik**
emakumeak ibili behar
zorrak ordaindu **ezinik**.
Etxean falta dan gauzagatik
ez dutelako **ajolik**
NESKATXAK! garai datorrenian
ez galdu zuen **zentzunik**
horrelako bat lagun hartuta
ez dagolako gauz **onik**.



zurrutian = trinkatzen
txikiteuan = poteoa; tabernaz
taberna basoerdi bat ardo hartuz

Nobelak = Eleberriak, istorio
liburuak





MEHETEGIKO XAKURRA

Doinua: Mehetegiko xakurra

Neurria: Neurri berezia. Sei puntukoa

Testuaren iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa



Gratien Adema Zalduby
(1828 Sempere - 1907 Baiona,
Lapurdi)

Gaizki zaintzen duten Xuriko zakurraren bizimodua.

Zalduby bertsolariak sorta hau aurkeztu zuen 1867an Anton Abbadiak antolatutako koplarien gudura.

- 1** Mehetegiko **xakurra**
zangoz, errainez* **makurra**.
Berga bat luze **muturra**
larrutik hurbil **hezurra**
urte guzia **barura***
zeren zen leku **xuhurra**.
- 2** Amak ttikitik **utzia**
esnerik gabe **hazia**
tripa errainei **josia**
uliek* jaten **hasia**
Xurikok bere **bizia**
hola derama **guzia**.
- 3** Mahainpetik **kokoriko**
begira dago **Xuriko**
arto axaltto bat **noizko**
ote zaion **eroriko**.
Nausiak emaiten **daizko**
doan hortik bi ostiko.
- 4** Xakur gaixoa **holakoz**
merke hazten **zutelakotz**
tripa hutsik, ilun **gogoz**
pleinuz* zagon egun **oroz**
hazka zangoz eta **besoz**
nihun* ez zauken **kukusoz**.



errainez = gerrialdez
barura = barava
uliek = euliek

pleinuz = aieneka, intzirika, arranguraz
nihun = inon





5 Ohoinak* ere noiz nahi
horren sainga* **ilaunari***
gabaz ziren irriz **ari**:
“Xakur prestua hi **haiz**, **hi!**”
Gero ixiltzea **sari**
jo harrika **gaixoari**.

6 Zenbeit gau egun **bakarrez**
gorde egonik **herabez***
agertu zen jan beharrez
hamikatua*, **nigarrez**
estalia **zaragarrez***
lakastaz* eta **zakarrez**.

7 Sukaldean nihor* **ez da**
sartzen da xakur **herresta***.
Errekia* zen prest **presta**
zeren zen herriko **besta**.
Usain, milik* eta **jasta***
dena jaten du **has eta**.

8 Etxeko andre **kexua**
hor heldu da hats **hantua***:
“Potzo **madarikatua**
eia* hor, **usu-usua***
nik hauts artean **burua**
egik hire **ordenua***.”

9 Ordenuak hau du **beltza**
denen uztea **bertzentza***
Xurikok badaki **ontsa***
nori zer utz, nola **pentsa**:
Etxekoandreari **gantza***.
Nausiari... azken **putza**.

10 Bizian gosez **egonik**
hiltzean sobera **janik**
Xurikok dauku **erranik***
egiatto hau **azkenik**:
Gose **dagonarenganik**
ez daitekela lan **onik**.



ohoinak = lapurrak
sainga = zaunka
ilaunari = ahulari
herabez = beldurrez
hamikatua = goseak
ahulduta, ahitua,
flakiak jota
zaragarrez = sarnaz

lakastaz = akainaz
nihor = inor
xakur herresta = arrasto-
txakurra
errekia = haragi errea
milik = milikatu
jasta = dastatu
hantua = arnasestuka


eia = ea
usu-usua = laster
ordenua = testamentua
bertzentza = besteentzat
ontsa = ongi
gantza = koipea, grasa
erranik = esanik





LAGUNAK ETA GU

Doinua: Mehetegiko xakurra
Neurria: Neurri berezia. Sei puntukoa



Aitor Servier Etxexuri
(1997 Azkaine, Lapurdi)

1 Nork ez du **argi-ilunik?**
Bozkariozko **egunik?** (bis)
Kantuz elkarri **entzunik**
bertsutan galdetzen **dut nik:**
«Nork ez du nahi **maitasunik?**
Nork ez du behar **lagunik?**»

2 Mutil-lagunen **xuxurla**
neska-lagunen **formula** (bis)
usu sortu ohi **dugula**
oinarri bakar **ahula**
Beraz, ez ahantz **sekula**
lagunak hor **dituzula**

3 Gorputz eta **izpiritu**
orok koloreak **ditu...** (bis)
Elkar babestuz, **handitu**
berritu eta **harritu**
gozatu eta **sufritu**
sentiarazi, **sentitu.**

4 Triste edo **irrifartsu**
elkarri eginez **kasu** (bis)
gaur ahul, bihar **ahaltsu**
har eta eman **ezazu**
lagun ona **bazira zu**
lagunak zaindu **itzazu.**





IKUSTEN DUZU GOIZEAN

Doinua: Ikusten duzu goizean

Neurria: Neurri berezia. Zazpi puntukoa

Testuaren iturria: Euskal Kantutegia, Eusko Ikaskuntza



Joan Batista Elizanburu
(1828-1891 Sara, Lapurdi)

Elizanburuk etxeari jarri zizkion bertso unkigarri hauek; bizitzan sorlekutik kanpo urteak eman zituenak, hain juxtu. Apaiz ikasketak utzita, Frantziako armadan sartu eta kapitaina izan zen. 1871n, Napoleon menderatua izan zenean, itzuli zen Sarara.

- 1 Ikusten duzu **goizean** argia hasten **denean** menditto baten **gainean** etxe ttipitto, aintzin xuri bat lau haitzondoren* **erdian** xakur xuri bat **atean** iturriño bat **aldean** han bizi naiz ni **bakean**.
- 2 Nahiz ez den **gaztelua** maite dut nik **sorlekua** aiten aitek **hautatua**. Etxetik kanpo zaut iduritzen nonbeit naizela **galdua** nola han bainaiz **sortua** han utziko dut **mundua** galtzen ez badut **zentzua**.
- 3 Etxean ditut **nereak** akilu*, haitzur, **goldeak** uztarri eta **hedeak** iazko bihiezt*, ditut oraino* zoko guziak **beteak** nola iragan **urteak** emaiten badu **bertzeak** ez gaitu hilen **goseak**.
- 4 Landako hirur **behiak** esnez hanpatu* **ditiak** ahatxe eta **ergiak*** bi idi handi, kopeta zuri bizkar beltz, adar **handiak** zikiro*, bildots **guriak** ahuntzak eta **ardiak** nereak dire **guziak**.
- 5 Ez da munduan **gizonik** erregerik ez **printzerik** ni bezein urusa* **denik** badut andrea, badut semea badut alaba ere **nik** osasun ona **batetik** ontsasun* asko **bertzetik** zer behar dut gehiago **nik**



haitzondoren = haritzondo (zuhaitz)
akilu = akuilu
bihiez = aleez
oraino = oraindik
hanpatu = puztuta

ahatxe eta ergiak = txahalak eta txekorrak
zikiro = ahari zikiratua, irendua edo kastratua
urusa = zorionsua
ontsasun = ontasun





ARTZAINZA

Doinua: Ikusten duzu goizean

Neurria: Neurri berezia. Zazpi puntukoa

Testuaren iturria: Fernando Aire Xalbador.

1976/2006. Odolaren mintzoa. Auspoa. 84 or.



PHOTO DR

Fernando Aire Xalbador
(1920-1976
Urepele, Baxenabarre)

Urepeleko artzaina zen Xalbador. Bere bizimoduari eta ardiei zien maitasuna azaltzen du sorta eder honetan. Hitzok abesteko nor egokiagorik, Erramun Martikorena artzaina baino?

- 1 Mendian sortu **bainintzan**
laguntzat ene **bizitzan**
artaldea dut nik **izan**
haur nintzaneko, aitak erranik ardiak goberna **nitzan**
plantatu* nintzan **artzaintzan**
mundu hunetan **gabiltzan**
gizon xumeen **langintzan**.
- 2 Geroztik ene **bizia**
izan eguzki **xuria**
ala elur **erauntsia**
santa sekula pentsatu gabe zer dutan **irabazia**
hola deramat **guzia**:
ardier erne **begia**
bihotzez heier* **josia**.
- 3 Udak ardia **derama**
libro oihanetan **barna**
orduaz ez naiz ni **jauna**.
Libertatea Jainkoak baitu denen gogoan **emana**
uzten diotet **baimena**.
Nola dezaket **kondena**
nihaurek* maite **dutana**?



plantatu = jarri nintzen, ogibidetzat
hartu nuen

heier = haiei
nihaurek = nik neuk






- 4 Neguan **sartzearekin**
artzainak badu zer **egin**
bai eta ere **atsegin**:
ate ondoan ikusi baitut ardi bat bi **bildotxekin**
hantxe bertze bat **batekin**
urruntxago bida **erkin***
zoin uros* naizen nork **jakin**?
- 5 Munduko **izaitetarik**
gaur eta **egundainotik**
bildotxa da **eztienik**.
Bati nik hauxe galdetu diot musu bero bat **emanik**:
“Nor da gutan **dakienik**
zoinetik zaituen **maitenik**:
zure amattok edo **nik**?”.
- 6 Ez da atzoko **kondaira**
doa bi mil’**urtetara**
jakintsunen **arabera**:
bildotx bat hartu besotan eta artzainak ziren **atera**
aingeruekin **batera**
Eguberri goiz **aldera**
Jesusen **adoratzera**.
- 7 Bildotxa Jesus **Haurrari**
eskaintzen izan **denari**
Jaunak emaiten du **sari**
ardi bildotxik duen herria ez da arras **urrikari***:
direlakotz **maitagarri**
berak ditugu **lotgarri***
sortu gaituen **lurrari**.



erkin = ahul
zoin uros = zein zoriontsu

urrikari = errukarri
lotgarri = lokarri, lotzen gaituena





Jesús Elósegui

Iñaki Eizmendi Basarri
(1913 Errezil - 1999 Zarautz,
Gipuzkoa)

AIAKO HARRITAN

Doinua: Aurten mudantza berria
Neurria: Neurri berezia. Zazpi puntukoa
Testuaren iturria: Inazio Eizmendi Basarri. 1992.
Nere bordatxotik. Auspoa. 98 or.

Basarri 1936ko gerran, ihesi, Frantziara joan zen itsasontziz. Amak eskatuta, Zarautzera etorrialdi bat egin zuenean ordea, salatu egin zuten eta "Batallon de trabajadores"-etan sartu zuten preso: langileak esklabu lanetan edukitzen zituzten. Basarri Aiako Harrien magalean, Aritxulegiko mendi-lepoan zegoen "Batallon de trabajadores"etan eduki zuten, Oiartzundik Lesakarako errepidea eta tunelak egiten.

Une gogorretan umore onari eutsiz jarri zituen bertso hauek Basarrik. Gerora, sorta hau askotan abestuko zuten Uztapide eta Basarri lagunek elkarrekin, bi ahotsetara, otorduosteetan.

1 Nork egin du gure **galde**?
Aiako Harritan* **gaude**
baina beti bezain **trebe**
tralarala, tralarala
lanean gogoz aritzen gera
soldatarik jaso **gabe**
berrehun nagusi **badaude**
gure artaldean **jabe**
guk umore ona **halare!**
tralarala lara...
Guk umore ona **halare!**

2 Hotz-aldi eta **goseak**
ta barau egun **luzeak**
guk baditugu **paseak**
tralarala, tralarala
gorputzari on egiten nunbait
gailur hontako **haizeak**
nola baigeran **gazteak**
sano dauzkagu **hesteak**
ez egonarren **beteak.**
tralarala lara...
ez egonarren **beteak.**

3 Goizean ekin **lanari**
egunsentian **pozgarri**
txori guziak **kantari**
tralarala, tralarala
ezin atera gentzake orain
inoiz adinbat **izardi***
erdietan gaude **geldi**
ahal degunean **exeri**
zertan nekatu **gehiegi?**
tralarala lara...
zertan nekatu **gehiegi?**

4 Oiartzungo **neskatilak**
muxu-gorri **biribilak**
izan zaitezte **abilak**
tralarala, tralarala
zertan maitatutzen dituzute
kaleko ume **zirtzilak?***
Aitxulei*-n daude **trankilak**
saltzeko dauden **opilak**
pare gabeko **mutilak.**
tralarala lara...
pare gabeko **mutilak.**



Aiako Harritan = mendi izena
izardi = izerdi
zirtzilak = zarpailak

Aitxulei = Aritxulegi mendi-lepoa,
Oiartzun eta Lesaka artean





ORAIKO DAMA GAZTIAK

Doinua: Aurten mudantza berria

Neurria: Neurri berezia. Zazpi puntukoa

Testuaren iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa



Aña Etxegarai Baraziar
(1873 Lekorne –
1939 Hazparne, Lapurdi)

Bere garaiko neska gazteen jazkerak eta jarrerak azaltzen ditu Aña Etxegarai, umorezko sorta honetan.

Etxegarai bazekien zerbait janzkera kontuez: bertsotan ere espartin (edo abarketa) fabrian ikasi zuen, fabrian lagun egin zuen Mariana Hargain Kanboko bertsolariarekin. Biek ala biek, Lore Jokoak irabazi zituzten gizonekin bat-batean lehiatuta eta plazan kantukide izan ziren. Plazan bertsotan aritzeko janzten zirenean, Añak eta Marianak oso presente izaten zuten apaiza ere entzuleen artean egoten zela begira; janzkera zaintzen zuten, emakume desagokitzat jo ez zitzaten (1890ean Marie Abbadiak eginiko elkarriketan jasota dagoenez).

- 1** Oraiko dama **gaztiak**
hamarretarik **zortziak**
pretentzionez* **betiak**
Tralarala, tralarala
mutilen gostuz betetzen 'tuzte
eraztunez **erriak***
petentez* **beharriak**
soinian zapeta **xuriak**
mutilen gostuz **guziak**
Tralarala, tralarala
mutilen gostuz **guziak**
- 2** Bertziak daude **ixilik**
baita **inportantagorik**
Filles de Marieak* **segurik**
Tralarala, tralarala
plazetari ere dantzatzeko
ez dute nahi **mutilik**.
Bi begiak **apalik**
ezpainak erdi **hetsirik***
ilun artian **segurik**
Tralarala, tralarala
ilun artian **segurik**.
- 3** Gero zer zaien **gertatzen**
hitz laburrez dut **erranen**
guziek jakin **dezaten**
Tralarala, tralarala
aintzinetik* hasten zaizkote
beren zaiak* **laburtzen**
gerriak berriz **loditzen**
indarrak ere **urritzen**
orduan dira **tristatzen**
Tralarala, tralarala
orduan dira **tristatzen**.



pretentzionez = pretentsioz,
harrokeriaz, handiustez
erriak = atzamarrak
petentez = belarritakoz

Filles de Marieak = "Mariaren Alabak"
Neska gazteen elizako taldea
hetsirik = itxirik
aintzinetik = aurretik
zaiak = gonak





Xabier Lete Bergaretxe
(1944 Oiartzun -
2010 Urnieta, Gipuzkoa)

HABANERA

Doinua: Baserrian jaio nintzan

Neurria: Neurri berezia. Zortzi puntukoa

Testuaren iturria: Xabier Lete, Eskeintza, 1991.

“Habanera” abestia 1991n plazaratu zuen Xabier Letek, “Eskeintza” diskoan (Elkar).

Kubako musika genero bat da habanera (hortik du hiriburuaren izena). Letek kantu honekin Kubara garamatza, doinuz bezala hitzez ere, nostalgiaz.

Berriro itzuliko balitz
iragan denbora arrotza
berdin kontsumi nezake
banilla gozo artean
itsaso urrun batetan
irudimena galdurik
udaberriko euritan
larrosak pizten ikusiz.

Ezpainek gordetzen dute
ezpain bustien gustoa
desiozko hotzikaran
etsipenaren tamalez
gauak zelatan dakusat
kontzientzia bilutsik
badoaz ordu geldiak
gogorapenen hegalez.

Tabako, ron ta kanelaz
sukartutako ametsetan
algarak* entzuten ziren
Habanako putetxetan
abanikodun mulatak*
gauari haize egiten
musiken aide nagiek
odola erretzen zuten.

Osaba komertzianterik
ez nuen izan Habanan
pianorik ez zegoen
bizi nintzen etxe hartan
neskatxen puntilla* finak
udako arratsaldetan
errosario santua
neguko gela hotzetan.

Jaio ginen, bizi gera
ez dugu ezer eskatzen
itsasontzia astiro*
kaiatik ari da urruntzen.
Antillak zintzilik daude
argazkien paretetan
karta bat idatziko dut
norbaitek erantzun dezan.

Jaio ginen, bizi gera
ez dugu ezer eskatzen
itsasontzia astiro
kaiatik ari da urruntzen.
Antillak zintzilik daude
argazkien paretetan
karta bat idatziko dut
norbaitek erantzun dezan.



puntilla = dantela
astiro = emeki
algarak = irri karkailak

abanikodun mulatak = biztanleak
haizemaileekin





Unai Iturriaga
Zugaza-Artaza
(1974 Durango, Bizkaia)

NERABEZARO BETEAN

Doinua: Baserrian jaio nintzan

Neurria: Neurri berezia. Zortzi puntukoa

- 1 Nerabezaro betean
eta nortasun **krisian**
galtzerdi baten zulotik
munduari **ihesian**
“Hemen nago!” bat gatibu*
hortzek osatu **hesian**
flan baten sendotasunez
eguneroko **bizian**
pila bako* robot bat naiz
hemen jaiki ta jausi **han**
horren lekuz kanpo nola
traktore bat **poesian**
txakur gorotz bat airean
grabitare **gabezian**
orbitatik kanpo nabil
DBH **Galaxian**.
- 2 Ta nire gorputz hau zer da?
Goma2a*, **dinamita**?
Hormonen ring-ea lehian
fisika eta **kimika**.
Burua eta gorputza
cutter batez **ebakita**
sentitzen naiz inon ondo
itsasten ez den **Post-ita**
galtzontzilo bat lurrian
fosiltzeraino **utzita**
kulero bat goi-tentsio
kable baten **eskegita***
maniki bat bezain zatar
harri bat bezain **polita**
ez egin barre berdintsu
gabiltzala **badakit-ta**.
- 3 Nor ez da sentitu inoiz
lurreko txikleen **pare**?
Euli bat mokordo baten
sagar batean **zizare**
edo puzker bat *blowing in the wind*
wifi bidez sare **sare**
toki guztietan traba
egiten duen **zutabe**.
Sudurra pintzaz itxita
edan behar den **edabe**
hori omen da bizitza
ta gu bizitzan **nerabe**
erabat maite ez dugun
geure buruaren **jabe**
elkar onartuko dugun
esperantza galdu **gabe**.



gatibu = preso
bako = gabeko

Goma2a = lehergai izena
eskegita = zintzilikatua





IPARRAGIRRE ABILA DELA

Doinua: Iparragirre abila dela

Neurria: Neurri berezia. Sei puntukoa. Bi errimako bertsoa

Testuaren iturria:

Antonio Zavala. 1969. Xenpelar bertsolaria. Auspoa. 120 or.



Juan Frantzisko Petriarena
Xenpelar (1835-1869)
Erreterria, Gipuzkoa)

“Xenpelar Bertsolaria” liburuan jasota dagoenez, bertso honen gertaera halaxe izan omen zen:

Xenpelar eta Iparragirre Donostiako sagardotegi batean egokitu ziren, eta Iparragirrek esan:

-Etorri nahi al duk nirekin? Nik soinua jo eta hik bertsoak kanta, ederki biziko gaituk!

Xenpelarrek ezetz. Eta Iparragirrek segi:

-Hik beti doinu zaharrean kantatzen dituk bertsoak; ez izan gauza nire doinu berriaz bertsoak egiteko... hargatik ez duk nirekin etorri nahi!

Eta Xenpelarren erantzuna hauxe izan zen: doinu berriaz (uste denez, Iparragirrek sortua zuen doinu berriaz) bi bertso hauek botatzea.

1 Iparragirre abila dela
askori diot **aditzen**
eskola ona eta musika
hori hoiekin **serbitzen**.
Ni ez nazu **ibiltzen**
kantuz dirua **biltzen**
komediante **moduan**
debalde festa preparatzen det
gogua dedan **orduan**.

2 Eskola ona eta musika
bertsolaria **gainera**
gu ere zerbait izango gera
horla hornitzen **bagera**.
Atoz gure **kalera**
baserritar **legera**
musika hoiek **utzita**
Erreterrian bizi naz eta
egin zaidazu **bisita**.





HAIZAK HI MUTIL MAINONTZI

Doinua: Aresoarren bandera

Neurria: Neurri berezia. Sei puntukoa.

Testuaren iturria:

Antonio Zavala. 1969. *Xenpelar bertsolaria. Auspoa*. 141 or.



Antonio
Valverde

Juan Frantzisko Petriarena
Xenpelar (1835-1869
Erretereria, Gipuzkoa)

Bizente Retegi
Musarro (1838 Oiartzun -
1919 Erretereria, Gipuzkoa).

Erretereriako Ehun (edo oihal) Fabrika Handian egin zuten lan, garai ezberdinetan, 4 bertsolari ezagunek: *Xenpelar* sendiko hiru bertsolarik (*Juan Frantzisko* eta *Maria Luisa neba-arrebek* eta *Joxepa Anttonik*, *Maria Luisaren alabak*) eta *Musarro*. Lauek ere fabrikan bertsotan jarduten zuten, umorea eta festa jarriz.

Bertsoaldi hau bi lagun minen artean gertatu zen: *Juan Frantzisko Xenpelar* eta *Musarro*. Biak ere euleak ziren fabrikan. Erretzea debekaturik zegoen; *Musarro* komunean pipa erretzen ari zen batean, *Xenpelar* kargu hartzen hasi zaio, adar-jotzen, enkargatu paperak eginez.

Xenpelar

Haizak hi, mutil **mainontzi***
nagusiari **goraintzi**
ez al hakiken hor pipa hartzia
ez zela **lizentzi**?
Jenio txar hoiek **utzi**
bestela hezurak **hautsi**
gizalegia nola behar dan
ezin **erakutsi**!

Musarro

Nik badet **gizalegia**
Prantxiskuk baino **hobia**
beste tatxarik ez zait aurkitzen:
arrote **pobria**
nik jeniua **noblia**
kortes **paregabia**
neri hezurak hausteko nun dek
abilidadia?



mainontzi = gastatua





Xenpelar

Ziri bat sartu dit **neri**
orain bestia **berari**
abilidade gutxi duela
ez esan **inori**
azala dadukak **lodi**
mamirik ez duk **ageri**
hezur igarra hausten zaila duk
baze ki at **hori**.

Musarro

Kunplitzik nere **ordenak**
ez dik kalterik **barrenak**
bestela parra egingo ditek
aditzen **daudenak**
hik nundik dauzkak **kemenak**
menderatzeko **gailenak**?
hezur igarrak hautsitzen dizkik
indarra **duenak**.

Xenpelar

Gaztelania **geroko**
ardua **berihalako**
nagusiari ejenplo onik
ez diok **parako**
gogua daukak **harako**
paraje ona **dalako**
eskola dezu txikiegia
tertuliarako.

Musarro

Arrazoi txarra **abian**
dezu seitatik **labian**
egongo zera errespuesta
aditu **nahian**
gabero nabil **galdian**
ikusi nahi nau **aldian**
zuk baino hobeki ematen det nik
hango **sukaldian**.

Xenpelar

Ardo guzien **jueza**
maiz erateko **promesa**
ofiziale ederra zera
irudi **inglesa**
zertako daukak **grandeza**?
Txikia ikusi nahi **eza**
yo buen hombre, usted no vale
hermoso **cabeza***.



*yo buen hombre, usted no vale hermoso cabeza =
ni gizon ona, berorrek ez du balio, buru handia!*





Fabrikan bertsoan

Entzuten zeudenek bertsoak gogoan hartu, buruz ikasi eta gerora idatziz jaso ziren aleak dira gaur ezagutzen ditugunak (gehiago ere botako zituzten akaso). Zehazki, Juan Frantzisko Xenpelarren ilobak, Joxepa Anttoni bertsolariak, etxean zituen eskuz idatzitako paper batean zazpi bertso hauek.

Musarro ez omen zen gauza Xenpelarri bat-batetan erantzuteko; etxera joan, patxadaz pentsatu eta biharamunean kantatzen zion erantzuna. Xenpelarrek bat-batean erantzun eta Musarro osteratxera pentsatzera... Honela egin omen zuten.

Elkarrekiko maitasuna, pentsa noraino...

Juan Frantzisko Xenpelar baztangak kutsatuta zegoela, hilzori, berekin etxean giltzaperatu zen Maria Luisa arreba bertsolaria. Maria Luisa haurdun zegoen eta lau urteko alaba txikia (Joxepa Anttoni) aitarekin utzi zuen, Juan Frantzisko zaintzeko.

Baztanga hilgarria eta kutsakorra izanik, erabat debekatuta zegoen gaixoen etxera sartzea. Gau batean Musarro adiskide mina etxera azaldu zitzairen, isilka eta ezkutuan, bisitan.

Azkenean baztangaz hil ziren etxe hartako denak: lehenik Juan Frantzisko, ondoren Maria Luisaren haurtxo jaioberria, eta azkenik Maria Luisa.

Joxepa Anttoni txikiak lau urterekin galdu zituen ama bertsolaria eta osaba bertsolaria; ez zuen aukerarik izan ama eta osaba fabrika elkarri bertsoan ikusteko. Baina handitzean, Joxepa Anttoni bera ere Fabrika Handian ariko zen bertsoan (nahiz errespuesta emateko lagunik ez izan), eta berak jasotako paperei esker ezagutuko ziren gerora osaba Juan Frantziskoren hainbat bertso...

